

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2012ko uztailaren 13a. IX. urtea. 2.384. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Lehen irudian *Peregrinatio*, argiaren bidetik erakusketaren lanetako bat ikusi daiteke, eta bigarrena Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkartek bildutako obretako bat da.

## Donejakue Bidea inspirazio iturri

Tolosako Aranburu jauregian bi erakusketa zabaldu dituzte ; bi bildumetan Donejakue Bidearekin zerikusia duten askotariko lanak ikusi daitezke abuztuaren 4a arte

'Peregrinatio, argiaren bidetik' erakusketa Juan Ramon Llavori Romateten proiektua da eta Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkarteko kideena, bestea ◦4-5

### Balarik gabeko eskopetak erabiltzea aurreikusi du Tolosako Udalak

Festa batzordeak sanjoanetako balorazioa egin du eta eskopetarien gaia aztertu dute; tolosarren parte hartzea nabarmendu dute ◦2

### Bihar jokatuko dituzte HITZA Pilota Txapelketako finalak

Tolosako Beotibar frontoian, 09:30etik aurrera, etorkizuneko pilotarien arteko lehia ikusteko aukera egongo da ◦6

### Euskadiko Segua Txapelketaren finala izango da Leitzan, igandean

Orendaingo 'Urki', Asteasun bizi den Mikel Alkorta donostiarra, Leitzako Jon Kanflanka eta Asteasuko Juan Joxe Lizaso izango dira lehian ◦3

XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera!

Sari mundialak!

FUNERARIA VASCONGADA EHZORZKETAK

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

TOLOSA  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

VILLABONA  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73



Udal ordezkariak eta sanjoanetako zenbait eragilek egin zuten jaien balorazioa. I. URKIZU

## Tolosarren parte hartzea nabarmendu dute sanjoanen balorazioan

Datorren urtean, eskopetarien eskopeta guztiak balarik gabekoak izatea aurreikusi du udalak

### Itzea Urkizu

«Tolosarren parte hartzea altua» nabarmendu dute, udal ordezkari eta teknikariek, nahiz eragileek, ekainaren 22tik 25era bitarte ospatutako San Joan jaiak baloratzeko egindako agerraldian.

Festa batzordeak joan den astean egindako balantzea oinarri hartuta, 2012ko San Joan Jaiak oso positiboki baloratu behar direla nabarmendu zuten Edurne Mendia Kultura eta jaietako zinegotziak.

Jaietako egitarauaren barruan, hainbat puntu nabarmendu zituen Mendiak. Esaterako, txupinazoa festa batzordean urte askotan lanean aritu izan direnek bota izana gogora ekarri zuten: «Berezia izan zen, eta polita ere

bai; omenaldi moduko bat izan zen». Bide beretik, kuadrilla eguneko parte hartzeaz gain, antolatzailerik garbiketaren eremuan emandako aurrerapausoak ere goraipatu zituen zinegotziak, eta azkenik, kuadrillek txosna batzordearekin egindako elkarlana ere aziparratu zuten: «Festa aberasteko balio izan du honek, eta Plaza Berrian beste jai eremu bat sortu da horrela».

Aurtengo jaietako berrikuntza nabarmenatarikoa, halaber, udalak laikotasunaren alde egindako apustua izan da, eta udalak ere baloratu du hau. «Zeresana eman zuten kontua izan zen, baina herritar gehienek gai hau mahaiaren gainean jartzeko genituen arrazoak ulertu dituztela uste dugu», azaldu zuten Edurne Mendiak.

Hurrengo urteko jaiak begira, «beti hobetzeko espazioak» daukela uste du udal gobernuak, eta herritar nahiz eragileen iradokizunak «atseginez» hartuko dituztela nabarmendu zuten zinegotziak: «Datorren urtean ere, jaiak eragileekin elkarlanean egiten ja-

rraitu nahi dugu, eta nahi duena etor daiteke batzordera».

### Sanjoanak Tolosan

Jaietako jarduerarik nabarmenak San Joan eguneko alardea eta kuadrillen eguna izaten dira, parte hartzeari dagokionez.

Aurten, 650 eskopeta inguru atera zirela azaldu zuten Jokin Monfort jaietako teknikariak, eta datorren urtera begira, eskopeta guztiak balagabeak izatea aurreikusi du udalak.

Kuadrilla egunari dagokionez, berriz, Irati Artutxa antolatzailerik ordezkariak oso balorazio ona egin zuten: «Parte hartzea oso altua izan zen, 1.670 lagun elkartu ginen, eta zalantzarik gabe, eguraldi onak ikaragarri lagundu zigun».

Aurten, berrikuntza nabarmena izan da antolakuntza aritu diren kuadrillek ingurumena zaintzeari begira egin duten ahalgaitza. Lehenengoz, edalontzi berrerrabilgarriak erabili zituzten, eta bazkalondoko garbiketaren ere saiakera berezia egin zuten, Euskal Herria plazako jantoki erraldoia ahalik eta egokien jasotze aldera.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Doako melanina neurketak egin ahal izango dira Usabalen

Minbiziaren aurkako elkarteak informazio mahaia jarriko du datorren asteazken eta ostegunean

### I. Urkizu

Melanina neurketa doan egin, eta norbera eguzkitan egon daitekeen denbora tartea ezagutu ahal izango du, datorren uztailaren 18an eta 19an, Tolosako Usabal kiroldegian, 10:30etik 13:30era bitartean.

Minbiziaren aurkako elkartearen eskutik, eta eguzkiagandik babesteko kanpainaren barruan, informazio mahaia izango da aipaturiko bi egun horietan, Usabal kiroldegiko igerilekuan. Informazioa eta melanina neurketa eskaintzeaz gain, ordea, smartphone-etarako doako aplikazioa ere jarri dute eskuragarri, batik bat 10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat; App Store-n eta Android Market-en lortu ahal izango da.

Aplikazio honetan, eguzki iz-

piengandik behar bezala babesteko aholkuak ezagutu ahal izango dituzte erabiltzaileek, euskaraz nahiz gaztekeraz.

### Kontzientziazioaren bila

Minbiziaren aurkako elkarteak oso beharrezkotzat jotzen dituzten hurrelako egitasmoak, izan ere, herritar asko eguzki izpiez babestearen garrantziaz ez direla konturatuak diote.

Esaterako, eta elkarteak behar bezala egindako zenbait neurketen arabera, 10 urteko gazteentzako gurasoen %35ak, eguzkiak gehien berotzen duen orduetan bakarrik babesten dituzte haurrak. Bide beretik, gurasoen %72ak, Eguzkitik Babesteko Faktore (EBF) bera erabiltzen du familia osoarentzat, haurrentzako faktore berezia erabili beharrean.

Gurasoen arduraz haratago, 16 eta 24 urte bitarteko gazteak dira, elkartearen arabera, eguzkitan ordu gehien pasatzen dituztenak, eta ordu gorenetan gainera. Hauen artean, %38ak onartzen du beti edo noizbehinka erretzen direla eguzkia hartzerakoan.

## Berrerabiliz fantasia munduak sortzeko ikastaroa

### I. Urkizu

**Puzzle:** mundua miniaturan izeneko tailerra izango da, datorren abuztuaren 8an, Topic zentroan.

Guraso nahiz haurrei eskaintako ikastaroa izango da, eta taldeka antolatuko dituzte parte hartzaileak. Kortxoak, alanbreak, sokak eta antzekoak berrerabiliz fantasiako mundu txikiak sortuko dituzte.

16:00etatik 20:00etara bitarte izango da ikastaroa, abuztuaren 8an, Stefanino De Angelis eta Marco Ieieren eskutik, eta 20 euro ordaindu beharko da.

## Postal lehiaketa antolatu dute Antxon Bandres bidaiarien txokoan

### I. Urkizu

Bidaiarien txokoak postal lehiaketa antolatu du, eta sariak ere izango dira: Donostiako Izadi Kirolak dendan erabiltzeko 100, 50 eta 25 euroko txartelak. Helbide honetara bidali beharko dira postalak: Antxon Bandres bidaiarien txokoa, Errota, Migel Aranburu enparantza, 20400 Tolosa.

Bestalde, udako orduetgia jarri dute. Astelehenetan, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara bitarte zabalduko dute. Asteartetik ostiralera, berriz, goizez bakarrik joan ahal izango da.

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Villabona erdigunean 3 urteko babes ofizialeko etxebizitza eta garajea alokairuan Etxebideren baimenarekin. 2 logela, sukaldea eta bainugela. Igogailua. Terraza han-

dia (11m). Oso argitsua eta eguzkitsua. Tximinia ere badu. Zure errenta aitoprenaren araberako prezioa. Ez duzu etxe baten jabea izan behar. Kontratupean 2015era luzagarri. Aukera ezin hobea!! Interesa duten-

nek, dei dezatela 620 40 83 80 telefono zenbakira.

### LAN ESKAINITZA

■ **Zerbitzaria.** Abuztuan, jate-txe baterako neska zerbitzaria behar da. Deitu 665 708 770ra.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Lizaso (goian ezkerrean), Ormaetxea (goian eskuinean), Kanflanka (ezkerrean) eta Alkorta (eskuinean). HITZA

## Eskualdeko lau segalari, etzi, Euskadiko txapelaren bila

Asteasuko Lizaso eta Alkorta, Orendaingo Ormaetxea eta Leitzako Kanflanka ariko dira Leitzako finalean

### Iñigo Terradillos

Azken lau urteetan gertatu moduan, aurten ere Euskadiko Segak Txapelketako txapela eskualdean geratuko da. Lau segalari ariko dira lehian, etzi, Leitzako Erreka auzoan, Urtozikiki baserriaren inguruan, 12:00etan hasiko den finalean: Asteasun bizi den Mikel Alkorta donostiarrak, Leitzako Jon Kanflanka, Asteasuko Juan Joxe Lizaso eta Orendaingo Jexux Mari Ormaetxea *Urki*. Laurak eskualdekoak, beraz.

Ordubeteen belar kilo gehien ebakitzen duenak jantziako du txapela. Kiloaz gain, txukuntasuna ere kontuan hartuko da, ohiko moduan.

Juan Joxe Lizaso izan zen izakio txapeladuna, eta 2009an lortu zuen bigarren txapela. 51 urteko asteasuarra hirugarrenez ari da Euskadiko Txapelketa jokatzeko eta hirugarren finala duetzikoa. Aurten Gipuzkoako Txapelketa irabazi du, ohiko eran, eta txapeladunorde izan da azkartasunekoan. Antonio Rezabal ariko da bere segak zorrotzen.

Lizasok bezala, Urkik ere bi txapela ditu jantzirik. 36 urteko orendaindarra lau finalisten artean eskarmenturik handiena duena da. Euskadiko Txapelketa hamargarrenez ari da jokatzeko, eta hamargarren finala du. 2010ean eta 2003an jantzi du txapela, eta 2002an, 2004an eta 2007an txapeladunorde izan zen. 2000n, 2001ean, 2005ean eta 2008an, hirugarren sailkatu zen. Indar handiko segalaria da, eta ohituta dago ordubeteko lana egitera.

Bestalde, 31 urteko Jon Kanflanka leitzarra da final gehien jo-

katu duen bigarren segalaria, etzikoa bosgarrena izango baitu. 2005ean jokatu zuen lehen txapelketa, eta aurtengoa zortzigarrena du. Pasa den urteko Euskadiko txapeladunorde izan zen. Nafarroako Txapelketarik ez du irabazi. Hiru aldiz egin du Nafarroako Txapelketa, eta hiruretan txapeladunorde izan da. Segalari bizia eta indartsua da. Joxejabier Ariztimuño ariko da segak zorrotzen eta Joxe Gabirondo laguntzen.

41 urteko Mikel Alkortarentzat hirugarren finala da Leitzan etzi jokatu dena. 2009an jokatu zuen estreinako txapelketa. Aurten txapeladunorde izan da Gipuzkoako Txapelketan, ohiko eran eta hirugarren, azkartasunekoan. Txomin Alkorta lehen-gusua izango du alboan segak zorrotzen eta Igor Esnaola, berriz, laguntzen.

Etzi jakingo da, beraz, lau finalistetatik zein segalarik jantziako duen aurtengo Euskadiko txapela.

## Aurten ere hainbat lehiaketa Berastegin



Lorategi ederrekin aurkezten dira berastegiarrak lehiaketan. HITZA

Leiho, balkoi eta terraza lehiaketa, lorategiena eta baratzeena egingo dituzte; gaur da izena emateko azken eguna

### I. Terradillos Berastegi

Berastegiko Udaleko kultura batzordeak, aurten ere hainbat txapelketa antolatuko ditu. Leiho, balkoi eta terraza zein lorategi txapelketak laugarrenez egingo dituzte, eta baratze txapelketa, hirugarrenez. Udalak herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera, eta animatzen direnak gaur izango dute izena emateko azken eguna.

Izena emateko udaletxera deituta, 943 683 000 telefono zenbakira edo harrera bulegora joanez egin ahalko da. Parte hartzaileek euren datuak ematearekin batera, zein txapelketan aurkezten diren adierazi behar dute. Batean, bitan edo hiruretan egin ahalko dute. Baratze txapelketan parte hartu nahi izanez gero, baratzea non kokatua dagoen adierazi beharko dute.

Izen ematea bukatzean, batzordekideak eta lorezaintza teknikari bat etxetik etxetik ibiliko dira puntuaketa egiten. Baratzeeen kasuan, berriz, bi puntuaketa aldi izango dira, bata, uztailaren bukaeran, eta bestea, irailaren erdialdean eta barazki teknikari batek egingo du balorazioa.

Argazkiak egingo dituzte, eta herriko jaietarako, Gaztai-

nondo elkartean eta Berastegiko Udaleko web orrian ([www.berastegi.org](http://www.berastegi.org)) izango dira ikusgai. Puntuaketa egiteko kontuan hartuko dituzten oinarriak kolorea eta landareen barietatea eta konbinaketa, estetika eta txukuntasuna izango dira.

Lehiaketa bakoitzean hiruna sari banatuko dituzte, beraz, gutxira bederatziritu izango dira. Leiho, balkoi eta terraza txapelketako eta lorategi txapelketako sari banaketa San Lorentzo jailetako herri afarian egingo dute. Baratze lehiaketakoa, berriz, ondoren egingo dute, kulturastean, hain zuzen, azoka egunean.

Berastegiko Udalen helburua da sariak ziklikoki banatzea, «ahalik eta partaide ezberdin gehien saritzeko». Beraz, iaz erabakitakoaren arabera, pasa den urteko garaileek aurten ez dute saririk jasotzerik izango, baina datorren urtean bai. Hortaz, 2010an sarituek aurten saria jaso ahalko dute.

## Agirreurreta, Argaia eta Otermin ariko dira lasto jasotze proban

Alegiako Karmen jaien barruan, Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketa izango da etzi, 18:30ean hasita

### I. Terradillos

Euskadiko Lasto Jasotze Txapelketa hartuko du etzi, herriko jaien barruan Alegiako Arratsaldean izango da proba, 18:30etik aurrera, eta 12 kirolari ariko dira

lehian. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroakoak dira parte hartzaileak, eta tartean, eskualdeko hiru, gipuzkoarrak hirurak: Andoni Agirreurreta asteasuarra, Pello Argaia zizurkildarra eta Lander Otermin ibartarra.

Kirolariak ahalik eta jasoaldi gehin egin beharko dituzte 40 kiloko lasto fardoarekin, 7 metrora goratuz, bi minutuko txandan.

Azken hiru urteetan Joxe Martin Bustintza *Tubi* dimatarra izan da txapeladuna, baina aurten, arrazozi pertsonalak tarteko, ez du

parte hartzerik izango. Pasa den urteko txapelketan, esaterako, berdin izan zuten bere Euskadiko Txapelketako marka, 24 jasoaldi eginda. Halaber, 2008an txapeladun izan zen, eta azken hiru urteetan txapeladunorde izandako Iñaki Bereau igantziarrak ere ez du parte hartuko etziko Alegiako proban.

Eskualdekoen kasuan, Andoni Agirreurreta hamaikagarren sailkatu zen iaz, 16 jasoaldirekin, eta Pello Argaia, berriz, hamahirugarren, 12 jasoaldi eginda.

**Tolosako Udala**

IRAGARKIA

Tolosako Udalak AZOKA ETA MERKATUETAKO ADMINISTRAZIOA kontratatatu behar du, dituen beharrei aurre egiteko.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak Tolosako Udaleko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura. Plaza Zaharrako 6 A zikloa, edota udaleko web orriaren ([www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)).

-Eskaerak aurkezteko epea 2012ko uztailaren 20an 13:00tan bukatzen da.

Tolosa, 2012ko uztailaren 11a.

ALKATEA,  
Ibai Iriarte San Vicente

**Hoteleko zuzendari**

**Jatetxe zuzendari**


**Maitre**

(Lekeitio eta Deba)

Hotelen kate bat da Aisia Hoteles ([www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)). Talde horretan daude bilduta, merkatuan itzalik eta hazkunderik handieneko hainbat hotel eta jatetxe; hamabi establezimendu, guztira.

Hoteleko zuzendari, jatetxe zuzendari eta maitre postuak betetzeko asmoz, Lekeitio eta Debako Aisia hoteletan, sektorean goi mailako prestakuntza duten pertsonak behar dituzte, gutxienez lau urteko eskarmentua dutenak ostalaritza eta jatetxe enpresetako ardura postuetan. Aintzakotzat hartuko da hainbat hizkuntza jakitea.

Postu horietakoren batean interesik izanez gero, bidali zure curriculumak helbide elektronikoa honetara: [rrhh@aisiahoteles.com](mailto:rrhh@aisiahoteles.com)



Peregrinatio, argiaren bidetik erakusketan ikusi daitezkeen bi eskultura eta margolan bat.

# Argiaren arrastotik, barneko bidetik

'Peregrinatio, argiaren bidetik' erakusketak eta Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkarteak erakusketak ikusgai, Aranburun

Bi egitasmoek Donejakue Bidea dute ardatz, baina bakoitzak bere nortasunarekin

### Imanol Garcia Landa

Bi erakusketak bat egin dute Tolosa Aranburun jauregian; beste solairuan dagoen *Peregrinatio, argiaren bidetik* izeneko eta azpiko solairuan dagoen Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkarteak antolatutakoak. Donejakue Bidea da erakusketen ardatza, baina bakoitzak du bere nortasuna. Biek hasgai daude abuztuaren 4a arte. Asteartetik larunbetera bitarte bisitatu daitezke, 17.00etatik 20.00era.

Juan Ramon Llavori Romatet zuzumarraren proiektua da *Peregrinatio, argiaren bidetik* erakus-

ketak. 2002an egin zuen lehenengo aldiz Donejakue Bidea, eta ondoren beste hamabi aldiz egin du. Erakusketan 50 artisten arteko nahasi dardel: eskulturrak, margolanak, marrazkiak, grabatuak eta Llavori berak eta Javier Lucas ek aletatutako argazkiak. Donejakue Bidea ez ezik, munduko beste bide batzuk ere bere isla dute Aranburun. «Proiektu honetiko hasi nintzean, mundu gurutiko bideak azaltea zen asmoa», esan du Llavori. «Eta zer dira, azken finean, mundu gurutiko bideak? gizakien bideak baino? Horregatik, nire asmoa zen, ahal den moduan eta ni egon naizen lekutik, ahalb-

ren izenburua kontuan hartuta lan bat egiteko eskatu die. Horregatik, obra batzuk bertu dituz bidean sartzeko. «Askatasun osoz egindako arte-lanak dira», azaldu du Llavori. «Estilo guztiak biltzen dira: realismoa, hiperrrealismoa, surrealismoa...».

Jendeari erakusketara josteko gonbidapena egin die Llavori, «ez bakarrik arte-lanak ikusteko, baita bideari buruz erakusketak ematen duen pentsamenduan sartzeko, bakoitzak bere askatasunetik».

### Elkartearen 25. urteurrena

Aurten Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkarteak 25 urte bete ditu, eta horren harira hainbat ekimen egingen ari dira. Besteak beste, Aranburun ikusi ditekkeen erakusketak ibiltaria. Bertan, lumaz egindako marrazkiak eta Gipuzkoako kostako eta barneko bidetako argazkiak ikusi daitezke. Azken hori Tolosatik igarotzen da.

Lumaz egindako marrazkiak Manuel Barrenetxearenak dira. Elkarte bakoitzak eta sortzaile bakoitzak bat da Barrenetxe. Oregatik Santiagora egindako bidean gustuko leku eta txokoi argazkiak atera eta gero-otsoan lumazko marrazkiak egin ditu. Tolosan 53 ikusi daitezke. «Lan handia dute marrazkiak, kokere bakarrek izanik, behar bezain guriak egitea zaila baita», dio Barrenetxeak.

Argazkiak eta marrazkiak gaur, erakusketan bada liburu bat oso berezia: Codex Calixtinus-en kopia fidela. Horrelako mila ale bakarrik daude. Benetakoaren orainak ere fidelerik kopiatuta diru aleak.

Elkarteak bulgoas du Tolosan, Santa Maria elizaren ondoan apaitz etxean. Elkarteak kideak ostegunetan, 19.30etik 20.30era, izaten dira bertan. Bestalde, 902 70 60 60 edo 675 70 95 86 telefono zenbakietara dugu daitezke informazioa jasotzeko.



Juan Ramon Llavori Romatetek osatutako bildumaren margolanetako bat.



Codex Calixtinus liburuaren kopia bat ikusi daitezke Aranburun.



Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkarteak zerbitu kidea Tolosan, eta erakusketako argazkiak eta bat.



Manuel Barrenetxearen lumaz egindako bi marrazki.

# Txerri festa antolatu dute Larramendi auzoan

Lagun talde batek txerri festa antolatu du eta hilaren 23ean egingo dute bazkaria; izena emateko azken eguna, hilaren 16a

### I. Garcia Landa

Tolosako Larramendi auzoko lagun talde batek txerri festa antolatu du hilaren 23erako, larunbetea. Elkartzaren helburua aurten festak antolatzeko jende multzo bat sortzea eta auzotarren artean egun on bat pasatzea da.

Gozetik hasiko dira prestatzuzkoak. Arraueko emaitzaren ondorioz planari zurrak zurrak dute, eta ondoren hasiko dira errezeta-lanekin.

Bazkaria 14.000ak aldera izango da, eta bertan txerriak, odoltsia, xolomoa, txuletak... dastatu ahaliko dira, denak partitillan erretuta. Haurrentzako menu berezia izango da, makarroiak ha regaletan. Postrea eta edaria (ura, ardoa, sagardoa) kupaletatik eta presiodun gangaridoa ere izango dira. Bazkariaren ondoren haurrentzako jolasak egingo dituzte.

Izena eman nahi duenak auzoko Auzo eta Plan B taldearen egin behar dute. Horretarako azken eguna hilaren 16a, hau da, datorren astelehena da. Hekikak 15 euro ordaindu behar dute eta haurrek 5 euro. Izena ematekoan ordaindu behar da 80 pertsona ingururantz zurrak zurrak dute bazkaria eta dagoeneko 40 inguruk eman dute izena.

### → Laburrak

#### Tolosa-Alegia bidegoria, bihurtik aurrera zabalik

**TOLOSA** | Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, Arantzabaltza eta Alegia arteko bidegoria egiten ari diren mantentze lanak amaitzeaz diena. Beraz, bihurtik aurrera bidegoria berri ere zabalik izango da.

#### Udazkeneko Jokoetan izena emateko aukera

**GIZARTEA** | Hurrengo jaiak izangoen elkartek zabalik du 2012. Udazkeneko Jokoetan izena emateko zerrenda. Hauxe dira joko motak: tutea, purritxo, musa 4 eta 8 erregetera, dormino, toka eta xakea. Izena elkarrean bulegoan eman daitezke. 10.00etatik 12.00etara, astelehenetik ostiralera.



Manuel Barrenetxearen lumaz egindako bi marrazki.





# Hogeita lau pilotari eta hamabi txapel

Luis Galarragak bikote federatuak aztertu ditu pilotariz pilotari; guztien maila altua nabarmendu du

## Asier Imaz

IX. HITZA Pilota Txapelketaren finalak bihar jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, 09:30etik aurrera. Guztira, 24 pilotariren artean, sei final jokatu dituzte, izan ere, pilotariak adinaren arabera sei mailatan sailkatu daude.

Benjaminak irekiko dute txapelaren ehiza, eta hauen atzetik, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak eta nagusiak irten go dira kantzara. Sarrera doakoa izango da, eta pilotazaleek aukera paregabea izango dute Beotibarren, etorkizuneko pilotarien jarraipena egiteko.

Luis Galarraga txapelketaren antolatzaile taldeko kidea da. Urtero bezala, buru-belarri ibili da lanean. Orain arte ikusitakoaren balantzea egiterakoan, «oso gustura» agertu da Galarraga:

## ↓ Finalak

### TOLOSAKO BEOTIBARREN, 09:30ETIK AURRERA

- **Benjaminak**  
Altuna-Estarbe  
Esteban-Zubeldia
- **Alebinak**  
Iraola-Alberdi  
Lasa-Ugartemendia
- **Infantilak**  
Arandia-Aizpitarte  
Esteban-Zubeldia
- **Kadeteak**  
Egiguren-Beloki  
Labaka-Salegi
- **Jubenilak**  
Mujika-Erasun  
Ormazabal-Imaz
- **Nagusiak**  
Gallurralde-Santxex  
I. Urbieta-Telletxea

«Eskola mailan oso ondo joan da guztia. Hurrengo urtean lehenago hasiz gero, ligaxka luzeagoa egin genezake, partida gehiago jokatzeko. Federatuekin ahal duguna egin dugu. Denbora gutxiarekin antolatu dugu aurtengo txapelketa, eta herriartekoare-

kin batera ibili gara. Eskualde mailako txapelketa atera zaigu, eta hurrengo urterako bada hobetzeko tarke handia».

IX. HITZA Pilota Txapelketaren maila ez da aurreko urteetako izan, denboraren aurka ibili baitira antolatzaileak. Herri arteko txapelketarekin batera jokatu dira partidak, eta horrek, pilotari askorekin kontatzea mugatzen du. Hala eta guztiz ere, lan handia egin ondoren, eskualdeko pilota eskolako arduradunen laguntzarekin aurrera atera da HITZA Pilota Txapelketa. Guzti honenagatik, trantsizio moduan ikusi behar da aurtengo edizioa. Hurrengo urtean pilota partida gehiago jokatzeko izango da helburua, txapelketa abian lehenago jarriaz. Luis Galarragaren esanetan, martxoan edo apirilean hastea izango litzateke egokiena. Horrela, herriartekoa hasterako, HITZA Txapelketa nahiko aurreraturik egongo litzateke. Antolatzailer lanetan, aurtengo urtean kideak egotea ere gustatuko litzaiok Galarragari, txapelketa Tolosaldean eta Leitzaldean zabaltzen joan dadin.

Pilotazaleari, azkenik, biharko finalera urtero bezala agertzeko eskatu diete antolatzaileek. Goiz pasa ederra egiteko aukera ematen baitute finalak. Txapelketaren ibilbidea kontuan hartuta, partida ederrak ikusteko aukera egongo dela esan dute.

## ↓ Kadeteak



**Egiguren-Beloki**

«Bi pilotariak tolosarrak dira, Beloki Bedaiokoa. Egigurenek aurrean jokatu du, eta ongi bukatzen du tantoa, oso pilotari polita da. Beloki nahiko segurua da, oso polita hau ere, kolpe pixka bat falta zaion arren».



**Labaka-Salegi**

«Kadete mailan dagoen aurrelaririk onenetakoa da Labaka, zizurkildarra. Indartsua, tantoa amaitzen abila... goi mailako pilotaria. Salegi itziarkoa da, oso segurua, nahiz eta kadeteetan lehen urtea izan».

## ↓ Jubenilak



**Mujika-Erasun**

«Mujika tolosarra da. Ezkerra eta nahiko teknikoa. Erasun atzelari oso segurua da. Kadetea izan arren, txapelketa honetan jubenilekin ari da jokatzeko. Hala eta guztiz ere, maila oso ona ematen ari da».



**Ormazabal-Imaz**

«Ormazabal aurrelaria billabonatarra da. Teknikoa eta kantxan oso ongi mugitzen dena. Imaz atzelaria segurua da. Kantxan ongi kokatzen da, eta pilota oso gutxi galtzen dituen pilotaria da».

## ↓ Nagusiak



**Gallurralde-Santxex**

«Gallurralde amezketarra da, eta aurrelari oso teknikoa. Santxex Astigarrakoa da. Mutil handia da, eta oraindik gaztea da. Nagusien mailan jokatzeko duen lehen urtea da, eta hortxe ari da lanean, oraindik ohitu beharra dauka maila honetara».



**I. Urbieta-Telletxea**

«Urbieta asteasuarra da, eta beti bezain teknikoa izaten jarraitzen du. Aurkariak baino esperientzia gehiago dauka. Telletxea albizurtarra da, golpea duen atzelaria, segurua, eta maila honetan dagoen onenetakoa».

**Galdaragintza**  
**BURNI, S.L.** *Ondo pasa jaietan!*  
Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532  
ALEGIA

**LEIHO ISOLATZAILEAK**

- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

**Leihopro**

Jai zoriontsuak pasa!  
**943 69 84 39**

**TXINDOKI AUTOBUSAK**

**FESTA ONAK PASA HERRIKOAK ETA KANPOKOAK!**

**ALEGIA**  
Tel.: 943 65 30 12

**ALEGIAKO UDALA**

GUREAN EZ DA BETI JAI BAINA BADIRA MILA MOTIBO KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI, AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA GUREKIN EZ DAUDENAI

**ONDO PASA FESTAK!!!**

Plaza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • [www.alegia.net](http://www.alegia.net)

# Transernio eta Joxean Tolosa lehiak, asteburuan

Adunako pilotalekuan bihar eta etzi jokatuko dituzte partidak, eta Amezketakoan gaur gauean

**A. Imaz-R. Calvo**

Asteburu honetan gazteen pilota partida ederrak ikusi ahal izango dira Adunan eta Amezketan. Lehen herrian Transernio Txapelketa ari dira jokatzeko, eta Amezketan, XXIII. Joxean Tolosa Txapelketa hasiko dute gaur gauean. Transernio Pilota Txapelketari dagokionez, bigarren jardunaldia jokatu da asteburu honetan. Aurrekoa ez bezala, oraingoa bikoitza izango da, hau da, partidak bi egunetan jokatu dira: bihar eta etzi. Kanporaketa moduan jokatzeko den txapelketa da, eta bertan, inguruko pilota eskolako haur eta gaztetxoak ibiltzen dira lehiatzen. Partidak 10:30ean hasiko dira, eta uztailako larunbat eta igandetan jokatu dira. Finala herriko jaietan izango da, abuztuan.

Larunbateko pilota jaialdia kadeteen partidekin hasiko da. Lehenik, Andoain eta Hernaniko pilota eskolako bikoteak ariko dira elkarren aurka lehiatzen. Ondoren, Intxurreko Iribarren-Luzuriaga, Amezketako Zabala anaien aurka ariko dira. Kadeteekin amaitzeko, Añorga eta Lasarteko pilotariak irtingo dira kantzara. Adunako pilota goiza agurtzeko, alde batetik Intxurreko Murua-Olano ariko dira, eta bestetik Andoaingo pilota eskolakoak.

Igandean beste lau partida jokatu dira, hauek ere 10:30etik aurrera. Kantxara irteten lehenak benjaminak izango dira. Zizurkilgo Gorostidi-Lizaribarrek

aurrean Intxurreko Artola-Zubeldia izango dituzte. Ondoren Aurrera Saiazeko Iraeta eta Altunaren txanda izango da. Hauek Andoaingo pilota eskolako bikotea izango dute aurrean.

Benjaminen ondoren infantilen partidak jokatu dira Adunako pilotalekuan. Intxurreko Arruti-Irazustabarrenak andoaindarren aurka jokatu beharko dute, eta herriko bikoteak, Zubeldia-Pagolak, aurkari hernaniarrek izango dituzte.

Azken partida honekin emango zaio amaiera Transernio Pilota Txapelketaren bigarren jardunaldiari. Hirugarrena hilaren 21ean eta 22an jokatu da.

## Joxean Tolosa Txapelketa

Era berean, Amezketako pilota eskolak antolatuta, XXIII. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa hasiko da gaur. Irailaren 9an amaituko da, eta frontoi osoan jokatu dute eskuz banaka. Kadete, gazte eta nagusian mailak izango dira lehiatzen, eta krisia dela eta, partaidetza ez da askea izango, ez baitute baliabide nahikorik. Horiek horrela, Euskadiko Txapelketa lehenengo eskuz eskuko pilotariak, herrialde bakoitzeko txapelduinak eta elkarrekin dituen konpromisoen arabera gonbidatuak izango dira partaideak. «Krisia dela eta, partaidetza murriztu behar izan gara, baina honek maila hobetzeko aukera eman digu», argitu du Xalton Zabala pilota eskolako zuzendariak.

Gaur 22:00etatik aurrea kadete-etako Zabala-Matxinandiarena, eta Aranguren-Martinez lehiatuko dira, eta gazteetan Goikolea-Goñi.

Larunbatean ordu beretik aurrera, kadeteetan Saratzaga-Olaizola eta Arregi-Murua izango dira lehiatzen, eta gazteetan Alduntzin-Labaka.

# Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

## Iritzia

**Eider Carton (Elhuyar), Mikel Irizar (Tokikom), Joanmari Larrarte (Berria taldea) eta Xabier Letona (Argia)**

Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen izenean

**E**usko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Saibilburuordeak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritzak, bestetan Aldundiak, besteetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izatera estrategikoa aitortzen bazaigu ere. Estrategikoa, bai, oinarritzko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazioa eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotoxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kirkildu krisiaren au-

rean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

## Inbertitzeko garaia

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen ereduaz ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publikitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiago izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeek (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako saibilburuordeak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira. Baina praktika beste-lakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina

benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorearekin berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urte urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

## Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeek. Denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok behar izan jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeek deia egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorearekin behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin hornitu dezagun.

## → Laburrak

### 'Ametsetan' ikusteko sarrerak, salgai

**VILLABONA** › Oinkariren *Ametsetan* lana ikusi ahal izango da bihar, 22:30ean, Olaederran. Sarrerak gaur eguerdia arte [www.barrabarra.eu](http://www.barrabarra.eu) webgunean erosi ahal dira eta ondoren Olaederrako kafetegira jo ahal izango da.

### Santio egunean bazkaria egingo dute

**ALKIZA** › Alkizan, tabernako arazoak medio, sansidrotako bazkaria atzeratzea erabaki zuten, baina osatuta berriz ere martxan denez, aurten Santio egunean, hilak 25, egingo dute. Txartelak erosteko azken eguna hilak 23 da. Parte hartzeko herrian gutxienez urtebetez erroldatuta egon behar da eta baserri bakoitzeko bi pertsonen bazkaria lagunduko dute diruz.

### Salontzotako herri afaria joateko aukera

**BERASTEGI** › Berastegiarrak Salontzo jaiak ospatuko dituzte abuztuan eta urteroko moduan herri afaria egingo dute. Abuztuan 9an jango dute txorra burduntzian, eta txartelak hilaren 31 arte erosi daitezke; 12 urtetik beharokoak 9 eurotan eta gainontzekoak 18 eurotan. Urepele eta Basurde elkarteetan, Zelai tabernan edo udal-etxean erosi ahal dira.

**Hilberriak eta urteurrenak**

**ESKELAK**

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

- I. URTEURRENA -

**JULIA GALARZA BERONA**

2012ko uztailaren 14an hil zen,  
97 urte atzula.

- Golan bego -

Seme-alabek, bilobek, anai-arrebek eta gainerako ahaideek ofoiz bat eskatzen dizurte haren alde, eta amen etor zaitezela urtebetetzeko mezetera. IGANDEAN izango da, EGUERDIAN 12:30ean, Ordizako AMA JASOKUNDEAREN elizan. Aldez aurretik mila esker.

ORDIZA, 2012ko uztailaren 13a



≈ 26°  
≈ 16°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	20°
HOTZENA	15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

**Agenda**

**DEIALDIK**

■ **Aduna.** Asvineneak barreterapia ikastaroa antolatu du hilaren 14 eta 15erako. Aitor Navarro da irakaslea, eta ikastaroak 45 euro balio du. Izena emateko 627 98 55 68 telefono zenbakira deitu behar da. Bestetik, antzerki inprobisazio ikastaroa ere antolatu du hilaren 16, 17 eta 18rako. Irakaslea Emmanuelle Thomé izango da, eta 622 86 79 48 telefono zenbakira deitu behar da izena emateko. Bukatzeko, hilaren 24, 25 eta 26an, 11:30etik 13:15era eta 16:00etik 17:45era, umeentzako zirko ikastaroa antolatu du. Eneritz Otegi eta Virginia Maffassanti izango dira irakasleak, eta 50 euro balio du. Izena emateko 689 79 24 69 edo 605 41 08 80 zenbakietara deitu behar da.

■ **Tolosaldea.** Lehiberrik hurrengo hilabeteetarako hiru programa antolatu ditu: Cheque+innova (hiru langiletik gorako enpresentzat), Legescan eta Eskoscan. Enpresei zuzendutako ikastaroak dira, eta izena emateko Tolosaldea Garatzeneko Enpresa sailarekin jarri behar da harremanetan; 943 65 45 01 telefono zenbakira deituta edo [enpresa@tolosaldea.net](mailto:enpresa@tolosaldea.net) helbidera idatzita. Ikastaroak egiteko 250 euro ordaindu behar dira, baina Legescan eta Ekoskan ikastaroen kasuan, Lehiberriko kideek doan egin ahal izango dituzte.

**JAIK**

■ **Alegia.** Karmen jaiak. **Egitarau ofiziala:** Gaur: 09:00etan, infantil eta alebin mailako 3X3 Saskibaloi Txapelketa izango da eskolako patioan; 17:00etan, umeen futbitoko

Santos Torneoaren finala jokatu da; 18:30ean, kartel lehiaketan parte hartu duten mazzakien erakusketa izango da udallexeko arkupetan, eta Ordi-ziako eraldoi eta buruhandekin, herriko txistulari eta trikitilari-ekin eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira egingo dute Larraitz auzotik herriko plazaraino; 19:00etan emango diote hasiera jaietara eta suzuria Juan Joxe Agirrek botako du; 19:30ean, Loatzo Musika eskolako txaranga kalez kale ibiliko da festa giroa zabalduz; 19:45ean Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua izango da, elizan; 21:00etan zahagi ardoa egingo dute, zubian; 22:30ean, pilota partidak: Alegiako II. pilota txapelketako finalak: afizionatuak binaka eta kadeteak lau t'erdian; eta 00:00etan Matxura eta Lisabo taldeen kontzertuak, plazan. Bihar, larunbata: 09:00etan herriko txistularien eta trikitilarien diana, eta arrantza lehiaketa Oriabaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat; 09:30ean Loatzo musika eskolako txaranga alaituriko diana izango da; 12:00etan sagardo dastatzea, sardina eta txorizoarekin, eta Asier Unsain eta Irma Karreraren trikiti doinuek alaituta; 17:00etan, baltsa jaitziera, Oriabaian; 18:00etan umeen jolasak plazan; 19:00etan, Olatz Zubeldia eta Ane Balerdirren eskutik trikiti doinuek izango dira eta herritarren arteko Toka Txapelketa egingo da helduentzako, plazan; 21:00etan herri afaria kultur etxean, sagardotegi menua izango da; eta 00:00etan DJ Imanol. Etzi, igandea: 09:30ean kalejira berezia, lehengo eta oraingo herriko txis-

tulariekin; 12:30ean, Alegiako Sutarrri dantza taldearen emanaldia herriko plazan (emanaldian zehar, Juan Joxe Agirri omenaldia egingo zaio); 17:00etan umeentzat meatzarien jokoak Kulk taldearen eskutik, eskolako atarian; 18:30ean herri kirolak izango dira Larraitz auzoko plazan VII. Txintxarri Saria; 20:00etan Los Rubi taldearekin dantzaldia, plazan; 21:00etan zahagi ardoa, zubian; 22:30ean bertsoarien txanda izango da, kultur etxean; 00:00etatik 03:00etara Los Rubi taldearekin dantzaldia, plazan. Etzidamu, astelehena, Karmen eguna: 09:00etan giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana, eta erretiratuak antolatutako mendi martxari hasiera emango zaio; 10:00etatik 14:00etara haur parkea izango da eskolako atarian; 11:30ean erretiroa hartuta dutenentzat hamaiketako; 13:00etan apar festa; 14:00etan umeen bazkari herrikoia izango da, plazan; 15:00etan umeentzat altxorren bila jokoak izango da, eskolako atarian; 17:00etan, haur jaialdia eskolako atarian, eta ondoren, merienda eta jokoak; 19:00etan dantzaldia Iratzar taldearekin, plazan; 21:00etan zahagi ardoa, Bulebarrean; 23:00etatik aurrera dantzaldia izango da Iratzar taldearekin; eta 00:00etan Txintxarrien ho-tsarekin agurra egingo diete aurtengo jaietara. **Egitarau alternatiboa:** Gaur: 21:00etan zahagi ardoa eta 01:00etan Dj festa: Beba&Panda, Alexander Loop, Xugua eta Deepresion. Bihar, larunbata: 21:00etan zahagi ardoa eta

23:00etan kontzertuak: Glaukoma Sound System, Atila y los Unos eta Bad Sound System. Etzi, igandea: 15:00etan herri bazkaria eta ondoren, poteoa egingo dute jolasak barne; 21:00etan zahagi ardoa; eta 23:00etan Manillares Iturriaga taldearen kontzertua. Etzidamu, astelehena: 21:00etan zahagi ardoa eta 22:00etan herriko bertsoariak.

**KIROLAK**

■ **Tolosa.** Oargi mendi taldeak Soriana irteera antolatu du astebururako. Gaur aterako dira Tolosatik Vinuesara joateko, eta bihar Laguna Negratik Urbion mendia igoko dute. Izena emateko 688 69 86 42 telefono zenbakira deitu behar da edo [info@oargi.com](mailto:info@oargi.com) helbidera idatzita.

■ **Asteasu.** Santamañako XII. Kros Igoera, igandean. 10:30ean hasiko da proba.

■ **Tolosa.** HITZA Pilota Txapelketako finala, bihar, Beotibar frontoian, 09:30etik aurrera.

■ **Tolosaldea.** Ehun Miliak mendi proba izango da asteburuan Goierrin eta Tolosaldean.

**ZINEMA**

■ **Tolosa.** Leidor zinemaren ingandean *¿Y si vivimos todos juntos?* ikusi ahal izango da 19:30ean, eta atelehenean, ikuslearen egunean, film bera botako dute, 20:30ean.

**DANTZA**

■ **Villabona.** Oinkari taldearen *Ametsetan* emanaldia, bihar, 22:30ean, Olaederra kiroldegian.

**Agurrak**



**Zorionak!**  
**Jon Zabala Murua (Alegia).**  
Nati eta familiak. Muxu bat.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

**BIHAR**

■ **Ibarra.** Lejeune, L. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

**ETZI**

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 38 49.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



HITZAK harpidedunentzat **4 afari pare** ditu



**16. GARAGARDO AZOKA**

Irrintzi elkartearen eskutik  
**Amasa-Villabonan**  
Txermingo Ikastolaren azpian  
18:00etatik aurrera



sarrerak



Zozketan parte hartzeko deitu asteazkena 14:00ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.